


# Herri Aldizkaria

# otomota



ELKALIZATEAN

ZINTZU  
MINTZU  
ELIARTEA

OPORRAK  
PASATZEKO MODU  
EZBERDINAK

HERRITARRAK SALOURA  
JOANGO GARA  
OPORRETAN

*Cien razones para aprender euskera  
...eta erabiltzeko beste hamaika arrazoi*



Hauek dira **Zintzo Mintzok**, **Bisasti AEK euskaltegiak** eta **Udal Euskaltegiak** antolaturiko lehiaketetan saritutakoak. “...Eta erabiltzeko beste hamaika arrazoi” sailean, **Jose Luis Padron Plazaola** urretxuarra izan da irabazlea, bigarren saria **Jon Herman Uribe** legazpiarrak lortu du eta **Maria Pilar Alonso Vicente** zumarragarrak, aipamen berezia jaso du. “Cien razones para aprender euskera” gaztelazko saila, berriz, hutsik geratu da.

**URRETXU ZUMARRAGAKO I. HERRI OLINPIADAK**



**Pello & Company** taldea izan da **Zintzo Mintzok**, **Euskal Jaia** taldeak eta **Gaztelekuk** antolatu duten **Urretxu Zumarragako I. olinpiadaren** irabazlea.

Uztailaren 8tik 19ra bitartean, herriko 12 talde futbiton, saskibaloian, pelotan eta palan aritu dira. Kirol hauek gutxi balira azken egunean triatloia egin zen, korrika egin, bizikletan ibili eta igeriketan aritu behar izan zuten partaideek. Olinpiadako txapeldunek eta sail bakoitzeko talde irabazleek garaikurra eta afari goxo bat jaso dute oparizat. Zorionak guztioi. Hori da sasoia, hori!

## Iñaki Beitia

*Bost puntetako izar bat zinen jakin ezazu aurrena, aberriaren maitasuna bat; bestea euskararena; hirugarrena mendigoizale; irakasle, laugarrena, bostgarrengoa, jatortasuna sinbolizatzen zuena.*

*Orain ordea, zaude geronen mugetatik at irtena, eta zu zara zeruetako izar diztiratsuen, gaurik beltz eta ilunean diz-diz egiten duena*

*Bere lurrean hegoak libre nahi zituen hegaztia euskarazkoa zen zure hitza bertsoa zure abestia mendian eta bizikletakin pasatzen zendun astia bizitza honek eskeini zizun zuk nahi zenuen guztia bihotzarekin ordaindu beharra ez al da ordain garestia*

*Benetan diot hau da egia albiste honek hustu nau ezin dut mina argi bihurtu nahiz pasa diren zenbait gau dena aurrera doan heinean zauriak ere hor dirau zerbait egin nahi eta egon naiz lau edo bost egun barau baina handitu soilik egin da barreneko hutsune hau*

*Bertso eskolako ikasleen bertsoak*



## Iñaki adiorik ez



Egun hauetan Urretxu-Zumarragako euskaltzale guztion bihotzek halako zirrara hotza sentitu dute **Iñaki Beitiaren** heriotzaren berri izan dugunean.

Iñakiren izaera hiru hitzetan definitzeko orduan ez nuke zalantza gehiegirik izango: Mendizalea, euskaltzalea eta abertzalea, hirurak maila berean eta elkarri loturik.

Euskaltzale moduan gaur egun, bere lana hiru esparru desberdinetara zuzendua zegoen: Ikastola, bertso eskola eta Udal Batzordea. Luzea izango litzateke Iñakik arlo bakoitzean buruturiko lanak aipatzea, baina bere nortasunaren bi xehetasun nahi nituzke azpimarratu:

Lehenengo, bera euskara hutsean bizi zela. Alde batetik ikaragarriko zortea zuen, bere lantokia, lagunak, ingurua, zeharo

euskaldunak baitziren, baina ezin ahaztu berak ixil-ixilik ikaragarriko lana burutzen zuela hau dena hala izan zedin. Bere bizitza euskararen aldeko konpromezua zen.

Bigarren, berriz, gure hizkuntzaren garapena eta gure herriaren askatasunaren arteko loturari ematen zion garrantzia azpimarratuko nuke. Gaur egungo kontseilari, sailburu eta batzordeetako burokraziak euskara bere zulotik ez duela aterako zioen. Euskara hizkuntza ofiziala izatea gure herriaren subiranotasunaren bidez bakarrik lortuko dugula aldarrikatzen zuen. Bitartean hainbat euskaltzaleren lanak iraupen hutsa besterik ez duela bermatuko. Eta noski, Iñaki gehienetan bezala... arrazoia huen.

Josean Alustiza  
Zumarragako HBko zinegotzia

Aldizkari honek Urretxu eta Zumarragako udalen laguntza jaso du



ZUMARRAGAKO  
UDALA



URRETXUKO  
UDALA

## Ekintza ugari geltokietako jaietan

Beste urte batez, jende asko ibili da geltokietako jaietan. Haurrentzat, gazteentzat, helduentzat, juergan ibiltzea gustuko dutenentzat eta kirolarientzat ekintza ugari izan dira festa hauetan.

Aurten krossa antolatu da lehen aldiz eta herritarrez gain, Euskadi mailan ezagunak diren zenbait korrikalari izan dira bertan. Igande arratsaldean asto karreran parte hartutako korrikalariak bestelakoak baziren ere, lan txukuna egin zuten.



## Angel Cruz Jakak liburu berria argitaratu du

Angel Cruz Jaka Legorburu zumarragarrik idatzitako *La Antigua Santa Maria de Zumarraga catedral de las ermitas* liburuaren aurkezpena egin zen ekainaren 30ean, Legazpi dorretxean. Kutxa fundazioak argitaratu duen liburu honetan Euskal Herriko baselizen artean katedrala den, Santa Maria ermitaren, hots, Antiguaren, historia ez ezik, garai bateko bizimoduaren berri ederki asko isladatu du Jakak. Gogo eta interes handiz egindako ikerketa luze eta sakonaren emaitza da liburua.

**KIROL DENDA**

Gernikako Arbola plaza 5, behea A  
URRETXU  
Tel: 72 59 71

ITURGINTZA

**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain  
gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxe: 72 54 59

**ELIZ - KALE**

**AUTOESKOLA**

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

ALBAITARITZA KLINIKA

• Ospitalizazioa • Txertaketak  
• Elikadura • Xizpiak • Zirujia

ANA ALUSTIZA ZABALETA

Filipinas uhartek, 5 ZUMARRAGA

Tel: 72 49 26  
Larrialdiak: 31 04 04  
6145 abonatua

☐ **Antigua, Gipuzkoako turismo erlijiosoaren ibilbidearen barne**

Datorren udatik aurrera Antigua ermita Loiola eta Arantzazurekin batera Gipuzkoako turismo erlijiosoaren ibilbidean sartzeko asmoa dagoenez, **Rosa Díez**, Eusko Jaurlaritzako kontsumo eta turismo kontseilaria, Zumarragara, Antigua baselizara etorri zen. Turismo erlijiosoaren ibilbidea inguruko turismo industrialarekin lotu daitekeela ere, azaldu zuen kontseilariak.



☐ **Aspertzeko astirik ez udaleku irekietan.**

6 eta 11 urte bitarteko 98 haur 10 begiraleekin batera, eskulanak egiten, jolasten eta igerilekuan gustura asko ibili dira uztailaren 3tik 19ra bitarteko goizetan Urretxuko udalak antolatutako udaleku irekian.

☐ **Zinemarekin bueltaka**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatua, **Koruko Aizarna**, Zelai Aristi zinema zabaltzearen alde azaldu zen Zumarragara egindako bisitan.

Aizarnak, diputazioa gure eskualdearekin kultura mailan zorretan dagoela esateaz gain Urretxuk eta Zumarragak duen iharduera kultural aberatsak erabilpen anitzeko aretoa behar duela adierazi zuen.

Zumarragako udalak honelako aretoa eratzeko prestatutako egitasmoa, 253 milioi pezetako aurrekontua duena, diputatuari hiru epetan egiteko egokia iruditu bazitzaion ere, datorren urtean diputazioak aurrekontuak onartu arte ez dela jakingo zenbateko dirulaguntza jasoko den ere aipatu zuen.

**TXINDOKI**  
TABERNA

Txopitoetan berezitasuna

Secundino Esnaola, 18 ZUMARRAGA

**BIONA**

**ARozTEGIA**

Altzariak neurrira  
& eta Faxe: 72 02 55  
Erratzu, z/g 20700 URRETXU

**EDURNE**

*Punta puntako moda*

*Aukerarik hoberena*  
*gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 ☎ 72 14 17 ZUMARRAGA

**ANSA**

**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 23

**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00  
20700 - ZUMARRAGA

**BAPRI**

Animalidenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

# Udan ere aukera



## Ikastolak antolatutako ingeles udalekueko begiraleak

Nahiz eta udan gure bi herriotara oporrak pasatzera jende gutxi etortzen den, bi irlandar eta hiru ingeles aurkitu ditugu. Demelza, Derek, Amy, Michelle eta Laura, Urretxu Zumarraga-ko Lourdesko Ama ikastolak antolatu dituen ingeles udalekuko begiraleak dira. Umeen hainbat eskulan, kirol, jolas... egiten dituzte, ingelesa modu entretenigarrian irakatsiz. Uztailaren 1ean etorri eta 24 bitartean hemen egon dira. Begiraleak beraien artean ez omen ziren aurretik ezagutzen.

Agentzi baten bidez etorri dira hona eta bertara heldu arte, ezezaguna zitzairen Euskal Herria. Nahiz eta zaindu beharreko umeak, bihurri xamarrek direla esan, orokorrean, ingeles maila ona omen dute. Asteburuak, inguruetako bazterrak ezagutzeko aprobetxatu dituzte; Iruñean eta Donostian besteak beste izan omen dira. Gehien gustatu zaizkien gauzen artean, janaria, kaleko segurtasuna, herritarrek beraiekin izan duten jarrera eta nola ez, inguruko festak izan omen dira. Zumarragako jaietan, Geltokietakoetan eta Iruñeako San Ferminetan ere egon dira. Irlandan eta Ingalaterran ez omen da horrelakorik!

**Beatriz Herreras** urretxuarak, udan ere lana egiten du. Ondare industrial berreskuratzeko antolatzen diren auzolandegietako arduraduna baita. 89. urtean Eusko Jaurlaritzako ondare industrialaren inbentarioa egiten hasi zenetik, ekinzior galtzar dagoen ondare mota hau berreskuratzeko lanari. Aurten, Udanan dago, Eusko Jaurlaritzak eta Legazpiko udalak bultzatutako egitasmoa izanik, helburua 1872. urtetik 1935 urte bitartera martxan egon zen mineral prestaketa tailerra berreskuratzea, ingurune hori txukuntzea, garai bateko lanaren berri emango duen museoa zabaltzea eta hau dena turismorako egokitzea da. 93. urtean hasi ziren Udanako auzolandegiko lanak, orduan lan asko egin zen, mineralak nahasteko erabiltzen

ziren bi labe handi eta hauen ingurua egokitu zen, 94 eta 95 urteetan etenaldia izan ondoren, aurten berriro ekin diote lanari. Estatu espainiarreko toki ezberdinetatik etorritako 23 bolondresak hiru monitoreekin batera dihardute lanean Beatriz Herrerasen agindupean. Goizetan auzolandegian aritzen dira eta arratsaldeetan jokoak eta ibilaldiak egiten dituzte. Bolondresak lana egitera baino Euskal Herria ezagutu eta toki ezberdinetako lagunak egitera etortzen dira auzolandegietara. Honek ez du inondik ere esan nahi hala ere, lanik egiten ez dutenik ez horixe, aurten ere martxa onean baitihardute.



## Beatriz Herrerasak gidatzen duen Udanako auzolandegiko bolondresak lanean

# ugari



**Calderitas komunitateko ume batzuk. Atze aldean, Julenek lo egiten zuen etxea**

Irlandan pare bat aldiz egonik bazen ere, Salvadorrera egindako bidaiak txundituta utzi zuen Julen Garralda. Lau hilabetetako egonaldia egin zuen Calderitas komunitatean. Hasera batean brigadista joan arren azkenean brigadetatik kanpo ibili zen.

Bizitzeko eran ezberdintasun handiak aurkitu zituen. Txaboletan bizi dira eta ez dute argindarrik. Eguna eguzkia irteteen hasten da eta eguzkia ezkutatzean, ohera sartzeko garaia izaten da. Julen egon zen familiak 12 seme-alaba zituen. Denak lurra lantzetik bizi dira eta gehien lantzen dituzten produktuak artoa eta babarrunak dira. Bizitzeko erritmoa ere oso ezberdina omen da. Hemen, erlojuaren menpean bizi garen bitartean, han, lasaitasun handiz hartzen omen dituzte egin beharreko lanak. Gogoan du oraindik goizeko 8etan bilera bat izan eta bere bilerakideak 12etan agertu zireneko hura.

Hamabi urte iraun duen iraultzaren ondoren, berreraikitzen ari den gizartea omen da Salvador orain. Jendearekin izandako harremana eta orokorrean bizi izan duen esperientzia Julenek ez du inoiz ahaztuko, ez horixe!

Nicaraguatik oso hurbi zegoela aprobeztuz, herrialde honetan ere 3 aste egon zen. Bereziki Laguna de Perlas inguruan ikusitako Rastafariak gogoratzen ditu. Guatemala ez bisitatu izanak, asko penatzen du. Dena den, Salvadorrera berriz joateko gogoazaltzen du eta azkenean joaterik balu, bide batez Guatemala bisitatuko lukeela ere, esan digu.

Egonean giro izaten delako, udako egunak luzeagoak izaten direlako eta garaiak eta eguraldiak lasai egotera laguntzen duelako Urretxu eta Zumarragan gero eta ugariagoak diren tabernetako terrazak betetzeko ohiturari gogor eusten diogu urtero.

Gehienontzat opor garaia izaten denean, egiten dute lan handiena terrazetan tabernariak. Uztailean, goizetan gutxixeago baina arratsalde eta iluntza partean jendez gainezka izaten dira terrazak. Abuztuan egunez, asko antzematen omen da oporretara edo egun pasa joanak garelara baina gaua iristean hortxe gaude berriro ere, terrazetan. Eta orduantxe hasten dira tabernatik terrazara eta terrazatik tabernarako ibilbide bukaezinak.

Edateko garaian oso normalak omen gara. Kafea eta garagardoa omen da gehien eskatzen duguna eta oso gutxitan omen dugu edari sofistikatu edo arraroa eskatzeren kapritxoa.

Ordaintzeko orduan, berriz, oso txintxoak omen gara. Ez gara ordaindu gabe alde egiteko asmoz, zerbitzaria tabernara noiz sartuko zain egoten. Baina tabernariak ere, bultzatzen gaituzte horren finak izatera, edaria zerbitzatu ahala, kobratzen saiatzen baitira gehienetan.

Batzuetan astun xamarrak izaten gara eta lagun talde osoa bildu eta guztiok zerbitzatuak izaterako hiru eta zenbaitetan lau aldiz joan behar izaten du tabernariak taberna barrura eta berriro ere mahaira etorri. Itzaletan toki ona bilatuz gero edota pase oneko lekuri topatuz gero ere, akabo. Kafe bakar batekin arratsalde osoa bertan egon gaiteske. Nahikoa lan ematen dugun arren, gustuko izaten dute tabernariak terrazetako giroa.



**Olga Gordo  
tabernaria**

## Herritarrak oporretan nora joango gara?



**Felix eta Arantxa. Halcon bidaiak**

Jende ugari, umeezin doazenak batez ere, Salourako bidaia aukeratu du. Balearrak eta Kanaria irlek ere harrera ona eduki dute eta jendeak uste baino merkeagoa izaten da bertara joatea.

Atzerriko bidaiei dagokienez, gazteek Europan zehar ibiltzeko bidaiak aukeratzen dituzte eta beste urte batzuekin konpatatuz, gazte asko Turkiara joango da.



**Agustin Elias. Goierri bidaiak**

Jendeak batez ere Estatuako kostetara jo du eguraldi ona eta hondartzen bila. Herri desberdinak ezagutzeko joera ere nabari da eta gero eta gehiago dira mendia eta hondartza konbinatzeko aukera ematen duten bidaiak eskatzen dituztenak.

Bertako jendea batez ere abuztuan joaten da oporretara, ez hilabete osorako hamabost egunerako baizik.



**M. Elena eta Garbiñe. Eroski bidaiak**

Aurten Kanaria irlek eskaera handia izan dute. Atzerrira begira, berriz, aurreko urteekin alderatuz, zenbaitek Cuba aukeratu dute.

Urretxu-Zumarragako jendeak Port Aventura Aste Santuan nahiago izan arren, abuzturako hainbat eskaera izan ditugu.



**Nerea eta Miren. Baskotour bidaiak**

Eskaerak batik bat Salou eta Mallorkarako izan dira, hala ere Pariserako bidaiak ere izan dira.

Jende gazteak mugitzeko joera haundia dauka, Dublin, Londres... aukera gehiagorekin jokutzen dute.

Jendea batez ere, abuztuan joaten da baina ez hilabete osorako, hamabost egunetarako baizik.

**Narmanki**  
Edergintza  
Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

**ZAPATAK**  
*Sindesi*  
Otik 40 zenbakiraino  
Eliz Kale, 7 ☎ 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

**Lanbri**  
- estetika  
- dietetika  
Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA



# Arriskuaren mugan



“Oporretan eta izerdi patsetan? Bai zera!” Hau pentsatuko du batek baino gehiagok. Baina oporrak jendez betetako hondartza batean etzanda gaudela ondoko bikotearen eztabaida entzutea eta aurreko patxarosoaren oinak sudurpean edukitzea baino zerbait gehiago badira. Alternatibak ugari dira eta honako hau aukeratuz gero izerditan egongo gara bai, baina, a ze era izerditzeko!

Puenting, rafting, trekking... edozer egiten duzula ere, -ing atzizkia itsatsi eta heroi bihurtuta itzuliko zara. Hori bai, argazkiak atera, froga objetiboak alegia. Besterik ez bada zubi batera igo eta soka batzuk ipini (ahal den era dexenteenean sinesgarria izan dadin) susto aurpegia jarri eta “klik”. Gero zubitik zeure burua bota edo ez bota zure esku dago.

Abentura, azkenaldian modan jarri den opor mota da eta Afrikan safari bat egiteko dirurik ez edota Akonkaguara igotzeko indarrak ez dugun bitartean honako aukerak ez daude gaizki. Bela, parapente, eskalada, puenting, rafting, kainoen jeitsiera... ez dira txantxetako gauzak baina segurtasuna oinarritzat hartzen dela ziurtatuz gero emozioz beteriko

esperientziak dira. Beldurra, ezinegona, irrika... dena nahasten da eta emaitza bizipen bikaina da. Horrelakoei muzin egiten dienak badauka trekking egitea, mountain biken ibiltzea edo zaldiz hor zehar ibiltzea.

Aukerak ugariak dira, bidai agentziek, hainbat mendi edo kirol elkartek eta beste zenbait taldek antolatzen dituzte horrelakoak. Bidaia, aseguru, monitorea, materiala eta egonaldia sartu ohi dira prezioaren barnean. Ez dira beste edozein opor mota baino garestiagoak. Gainera Diputazioak laguntza oso inportanteak eskeintzen ditu, 29 urterterteko gazteentzat aukera merke eta kalitatezkoen bidez. Esate baterako *Gaztemaniak* programaren barnean erdi prezioan egin

daitezke bidaiak. Ez dira Diputazioak antolatutako bidaiak, bere laguntzarekin horretara dedikatzen diren hainbat elkarte edo arduradunek eraturakoak baizik, beraz arduradunaren abilezia da funtsezkoa.

Inguruan Ibarako zubia, Hernani eta Eginoko haitzak eta beste hainbeste aukera badagoela badakite kirol hauen zaleek, baina oporretan kanpora irteteko aukera (ez beharra) dago eta ez da ez hain zaila ezta garestia ere.

Dena den, siesting zaleak argi ibili, programako beste aktibitateek ekintza “arriskutsu” hori egiteko denborarik ez baitute uzten. Eta normalen bertan behera utzi ohi da *siestinga*.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa*  
*fundación*

## A ZE FLAXA!



Goierrri Kirol Elkarteko mendi taldekoek leku aproposa aurkitu zuten, Iñurrategi anaiei kanpo basea jartzeko. Irimorako bidean gaua bertan pasatu behar izan zuten. Gaueko musika goxoa goraiatu zuten behin eta berriz gailurrera iristean.

# Oporretako Agenda

## URRETXUKO JAIAK

Uztailaren 29an Santa Anastasia jaiak antolatzeko bilera egingo da Urretxuko Kultur Etxean. Arratsaldeko 7:30etan izango da.

## ANTIGUAKO XIII. MUSIKALDIA

Irailean Antiguako XIII. Musikaldia ospatuko da. Kontzertuak larunbatetan izango dira, hilaren 7an, 21ean eta 28an hain zuzen ere, eta arratsaldeko 7:30etan hasiko dira.

## ANDRA MARI EGUNA

Abuztuak 15ean, **Andra Mari eguna** ospatzeko IRRINTZI dantza taldeak **ezpatadantza** dantzatuko du Zumarragako Jasokundearen parrokiaren goizeko 11etako meza nagusian, bertan udal ordezkariak izango dira.

12:30etan **aureskua** dantzatuko dute Euska-di enparantzan.



Mutua General de Seguros

Iparagirre, 11-etxeazpia  
20700 URRETXU

© 72 25 99

## MASTER - Hezkor

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!

Urdaneta Hiribidea, 5 ZUMARRAGA

© 72 41 31

ZUMALORE  
LORATEGIA



Begoña Sagastizabal

© 72 51 90 - 72 06 76

Iparagirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA



ALGAR

Estetika zentroa

Depilazioa, masaiak, azal garbiketa

Ipeñarrieta 1-1.ezk.

URRETXU

© 72 02 46

LIBURUENDA

GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxa: 72 50 45  
20700 URRETXU



Urola Garaiko Mankomunitateak, **Urola Garaiko Turismo Bulegoa eta artisautza produktuen denda** zabaldu berri du Ezkio-Itsason. Bertan Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarragan ikus daitezkeen ondare historikoen berri, hots, monumentoak, eleizak, eraikuntzak, olak... eta egin daitezkeen ibilbideen informazioa eskaintzen da. Informazio idatzia jaso ahal izateaz gain, informazioa gustura asko ematen duen teknikari bat ere bada bulegoan. Urola Garaiko herrien berri eta, Euskal Herriko gainontzeko herrien informazioa eta kanpin edota hotelen informazioa jaso daiteke turismo bulego berri honetan.

Zabaldu berria bada ere, zenbait kanpotar izan da gure herrietan ikus daitezkeenaren informazio eske.

Turismorako informazioa emateaz gain, Urola Garaiko **artisauek egindako lanak**, abarkak, lore lehorrak, zeramika... daude salgai bulegoan bertan.

Aurtengo udan zer egin ez badakizu eta Euskal Herria edota gure herriak hobeto ezagutu nahi badituzu, joan zaitez, gehiegi pentsatu gabe Ezkio-Itsasora, bertako Turismo Bulegora.

**Astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik ordu bietara eta arratsaldeko 5etatik 8etara izango da zabalik. Larunbatetan, igandeetan eta jai egunetan, berriz, goizetan 11etatik ordu bietara eta arratsaldeetan 5etatik 8etara irekiko ditu atak.**

Herri Aldizkaria  
**Otamotz**

**Etxean dohain jaso nahi baduzu edota iragarkiren bat egin nahi baduzu Deitu 72 57 75 telefono zenbakira**

# Zorionak!!!



Zuek ere uda garaian bete behar zenituzten urteak. Eguzkia, hondartza, bikini... eta zuen merienda. Hala ere berdin zaigu. Bion artean merienda ona prestatzen baduzue, zuengatik kilo pare bat gizentzeko prest gaude. **ZORIONAK Rakel eta Cristina** eta datorren urtean beste data bat aukeratu urteak betetzeko`.



**Unai** goizero goizero Leioarako bidean autobusean ikusten ez zaitudanetik ezin dut lorik egin. Zure begi lokartuek nire irudimena esnarazten dute. **Zorionak Unai** urrian naukazu zain

Kaixo txikito. Zure etxeko, pisuko eta laneko telefono zenbakiak baditugu, baina internetekoa falta zaigu. Lortuko dugu, Otamotzek zure beharra du eta. **ZORIONAK Jonmikel.**



Akonkaguara igotzeko gai izango al zara urte bat gehiagorekin? Edadeak ez du barkatzen. Ondo pentsatu joan aurretik, **Unai. Zorionak** mendian gutxi ibiltzen diren lagun batzuen partetik.

Topa eta topa zure gurasoak Josune pototak zuri **Jone** maite zure egunean zoriona beti dizugu guk opa

# ATLANTARAKO KANDORAKETAK



*Lehenengo denok batera*



*Gero onenak aurrera*



*Tranpa, tranpa!!*



*A ze fans pila!*



*Bai gustora, saskibaloiko txapeldun TXJKJA!*

**EZ ZARETE ATLANTARAKO SAILKATU, BAINA LASAI,  
LAU URTE DITUZUE PRESTATEKO**